

## Santamariaren hilketa gaitzetsi dute hainbat alderdi eta erakundek

Donostiako Udalak mozio bat onartu zuen, baina ez zituen jaietako ekitaldiak eten

**E**rreakzio ugari eragin ditu Jose Antonio Santamariaren hilketak, bai alderdi politiko, bai hainbat erakundetan. Donostiako Udalak atentatua gaitzetsi, baina ez zuen arratsaldeko danborradak ez egitearen aldeko erabakirik hartu, alkateak proposatu arren.

### DONOSTIA

Jose Antonio Santamaria Vaqueriza, Ku dantzalekuaren jabe izandakoa (egun Donostiako Basque kafetegia berea zen) eta Real Sociedad futbol taldeko jokalaria ohia herenegun gauean, San Sebastian egunaren bezperan, hil zuten Donostian. Parte Zaharreko Gaztelupe elkartearen afaltzen ari zela, gazte bat hurbildu eta tiro bakar bat egin zion buruan. Santamariaren aldeko hileta elizkizuna gaur egingo da Parte Zaharreko Santa Maria elizan.

Erreakzio ugari eragin ditu atentatu honek. Odon Elorza Donostiako alkateak gertaeren lekuan azaldu zuen bere gaitzespena, eta herritarrei eskatu zien Donostian bizi den festa giroaren barruan, «arbuio azalpenak» egin ditzatela. Atentatuaren berri jakinda donostiarrek herenegun gauean erakutsitako «erreakzio eskasagatik» kexu agertu zen alkate sozialista.

Alkateak deituta, udal pleno berezia egin zen atzo Donostiako Udalak atentatua gaitzesteko. EAJ, PSE-PSOE, PP, EA eta EUEren botoz onartu zen mozioa (EEko ordezkaria ez zen joan). Alkateak arratsaldean egitekoak ziren danborradak bertan behera uzteko aukera plazaratu zuen arren, mozioak ez zuen horrelako eskaerarik egin. Hala ere, «beren gaitzespena azaltzeko» deia egin zieten donostiarrei. «Jose Antonio Santamariaren hilketak inoiz baino gehiago tristetu ditu hiriko jaiak» dio aipatu mozioak, eta «horrelako ekintzak justifikatu eta babesten dituztenak» salatzen ditu.

HBko zinegotziak abstenitu egin ziren mozioaren bozketan. Atentatua dela eta kaleratutako agiria irakurri nahi izan zuten, baina alkateak ez zien utzi. HBren agiriak tamalgarriztat jotzen du Jose Antonio Santamariaren hilketa, baina «arrazoi politikoak» ikusten direla atzean eta hildakoari leporatu zaion narkotrafikoarekiko lotura gogoratzen du. Arlo horretan mugitzen diren talde mafiosoak begi-bistan daudela, eta ezkutatuzina dela uste du HBk, eta sare horretan inplikaturak ez dutela Estatuaren zigorrik jasotzen salatzen du.



Gaztelupe elkartearen afaltzen ari zenean hil zuten Santamaria astearte gauean.

EFE

✓ «Arbuio adierazpenak» egin ditzaten eskatu die Donostiako Udalak herritarrei.

Gainontzeko alderdi politikoek atentatua gaitzetsi zuten atzo. «Inoren bizitzaren kontrako atentaturik egiteko justifikaziorik ez dago» zioen EAJk zabaldu zuen agiriak.

**ALDERDI POLITIKOEN GAITZESPENAK**

Santamariaren hilketa «bere festa bakean pasa nahi duen herri oso baten kontrako iraina» dela uste du PSE-PSOEek. Atentatu

horrek Euskal Herriaren «bake esperantzak suntsitu» dituela azaldu zuen.

Horrelako atentatuak gaitzesteko eskatu zien herritarrei EEK, «batez ere isilik geratzen den sektorea, beren isiltasunarekin ETako mafiosoek babesa ematen dietelako».

Gregorio Ordoñez, PPko bozeramailearen esanetan, «donostiar guztien bihotzean egingako tiroa» da Santamaria hil zuten tiroa. Indarkeria amaitzeko bide bakarra, «herritarrak hiltzea bultzatzen dutenei injekzio heriogarria emateko gai izatea» da bere esanetan.

Patxi Baztarrika EUEko bozeramaileak ETari hiltzeari uzteko eskatu zion eta HBri «bere askatasuna lortu eta gehiengoarekin bat» egin dezala. Santama-

✓ Jose Antonio Santamariaren aldeko hileta Santa Maria elizan egingo da bihar.

riaren hilketa ezin dela justifikatu uste du EUEK, «Santamaria ere errugabea zela esan dezakegu». Horrelako gertaera baten aurrean «etsipen sentimentua» sortzen dela adierazi zuen Pablo Mosquera, UAKo idazkari nagusiak.

**BESTE ZENBAIT ERREAKZIO**

Jose Maria Setien, Donostiako goztainak ere bere gaitzespena azaldu zuen, «ekintza kriminal honen arrazoia edo eragilea zein izan den kontuan izan gabe». Setienek atzo Donostian emandako mezan azaldu zuenez, Santamaria hil duen balak «hiri guztia zauritu du bere sentimendu gizakorrenetan».

Garraixi Isila koordinakundeak, berri, 132 kontzentrazio antolatu zituen atzo atentatua gaitzesteko. Pakea Orain taldeak, berri, ETari zuzendutako gutun bat zabaldu zuen. «Mendekua nahi duen justizia» dela ETaren diote, eta ETAK ez duela gustuko «donostiarrek festak ongi pasatzea, ez dutelako onartu nahi herritarren gehiengoak beraien-gandik aparte lortu nahi dugula elkarbizitza».

Victor Aierdi, Elkarri mugimenduko bozeramaileak Iruñean esan zuenez, «gure ezeztapena merezi du gertaera honek, herri honetako gertaera biolento guztiek bezalaxe».

## Tiro batez hil zuten

### DONOSTIA

■ Jose Antonio Santamaria Donostiako Parte Zaharreko Gaztelupe elkartearen afaltzen ari zen, San Sebastian bezperako ohitura den moduan. Gaueko hamaika t'erdia zirenean gazte bat hurbildu zitzaion atzetik, eta tiro bakar bat egin zion lepondoan, iturri ofizialek azaldu dutenez. Santamaria zerraldo hilda erori zen. Lekuko batzuek azaldu zuten, atentatuaren egileak, ohizko sukaldari burukoa zuela, beste sartu-atera bat egin zuen minutu ba-

tzuk lehenago elkartera. Bigarrenengan zuzenean jo zuen Santamariarengana pistola bat ateraz.

Tiro egin ondoren, oinez egin zuen ihes jendez gainezka zeuden Parte Zaharreko kaleetatik. Izan ere, minutu gutxitara danborrada nagusia hastera zihoan. Atentatuaren ostean inguruneak itxi zituen Poliziak, eta 9 milimetro 'Parabellum' balazal bat jaso zuen. Munizio mota hau ETAK erabili ohi du, baina iturri ofizialek ez zen atzo ezer adierazi atentatuaren egileei buruz.

**Narkotrafikoarekin lotzen zuten akusazioak gezurtatu zituen**

### DONOSTIA

Jose Antonio Santamaria Basque jatetxearen jabea, Ku diskotekaren jabe ohia eta Realeko jokalaria ohia narkotrafikoarekin lotuta agertu da, 'Diario 16' egunkariak 1990ean 'Navajas txostena' delakoa ezagutzera eman zuenetik. Joan den azaroaren 23an, Donostiako Auzitegiaren aginduz atxilotu zuten Jose Antonio Santamaria eta epailearen aurrean deklaratu ondoren aske gelditu zen aurkako kargurik gabe.

Harrezkerotik, Jose Antonio Santamariak zertifikatu bat eskatu zion epaileari 'Navajas txostenaren' inguruko diligentzietan nahasturik ez zegoela argi geldi zedila, Vasco Press agentziaren arabera. Abenduan eskatu arren, Santamariak ez zuen jaso eskatutako zertifikatua. Narkotrafikoarekin lotzen zuten akusazio eta informazioak gezurtatzeko erabili nahi zuen aipatutako zertifikatua, Vasco Press-en arabera.

Jose Antonio Santamariaren izena narkotrafikoarekin lotuta agertu da 'Diario 16' egunkariak 1990ean Luis Navajas fiskalak Estatuko fiskal nagusiari bidali zion txostenaren berri eman zuenetik. Luis Navajas Donostiako Auzitegiko fiskalburuak ikerketa batzuk hasi zituen 1988an narkotrafiko sare baten inguruan eta bertan nahasturik egon zitezkeen goardia zibil batzuen inguruan. Goardia zibil horien artean Francisco Rodriguez Galindo teniente koronela eta Intxaurrendoko komandantziako burua zegoen. Gaur egun ikerketak zabalik daude.

**NAVAJAS FISKALAREN TXOSTENA**

'Diario 16' egunkariak eman zuen argitara ikerketa hau 1990eko azaroan eta Jose Antonio Santamariaren izena aipatu zuen. Egun haietan 'Interviu' aldizkariak Navajas fiskalaren ikerketen inguruan Goardia Zibilaren txosten bat eman zuen argitara eta bertan Enrique Rodriguez Galindo eta Jose Antonio Santamaria aipatzen ziren. 'Interviu-ren' artikuluen arabera, Mujika deitutako batek abisua eman zion Basque jatetxean Goardia Zibileko jeneral bat bere atzetik zebilela.

Akusazio hauen aurrean, Jose Antonio Santamariak komunikabideak bildu zituen eta deklarazio bat irakurri zuen akusazio guztiak gezurtatuz. Era berean, Rodriguez Galindo Goardia Zibileko burua ezagutzen zuenik gezurtatu egin zuen.